

TURINGO OIHAL SANTUA TA ZIENTZIA AURKIKUNTZA HARRIGARRIAK

Turingo Oihala (kristauentzat Turingo Oihal Santua) antzi-
ñako ehun bat da. Izara honetan, heriotzaturiko gizon baten iru-
dia ta odol antzeko kutsu batzuk agertzen dira. Oihal honetan
itxuraturiko gizona kristau aroko lehenengo gizaldikoa ete da?
Gurutzean josiriko judutar hori Nazaretoko Jesus ete dogu?
Kristo hildakoaren gorpua bildu eban oihal garbia eta dogu
ehun hau?

Hamalagarren gizaldian artista ezezagun batek margotu
ebala Turingo Oihal honetan agertzen dan irudia, hipotesis eta
baieztapen honek nahiko jarraitzaille ta defendatzaillé izan ditu
gizaldictan zehar.

Gaur egun, zientzilari askoren ustez, Turingo izara hau,
kristauak Oihal Santutzat euki dabena, bera da. Oihal honez bil-
duta egon zan Jesusen gorpua, hillobian, 40 ordutan.

T. Oihal honi argazki pillo bat egin jako, eta hainbat zien-
tzia frogaketetan eta analisisetan aztertua izan da. Horregaitik,
naiz eta definitiboak izan ez emaitzak, zientzilariak ondorio ta
hipotesis oso interesgarriak emon ditue.

Idazlan honetan, zientzi proba ta ikerketa honeen laburpen
bat emoten saiatuko gara, balioztapenak eta iritziak irakurle adi-
korrari izten deusoguzela.

Turingo Oihalaren historia

Kristau aroko lehenengo sei gizaldietan argibide gutxi aurkitzen da Oihal honi buruz. Dokumentazio eskasa eta oraindiño aipamen urriago Oihaleko iruditzaz, Kritikariak, dokumentazio historiko urritasun hau dabe izkillurik sendoena, argudiorik erabiliena, Oihal honen benekotakotasuna ukatzeko.

VII. mendean Zaragozako artzapezpiku Braulio deunak (+650) Jerusalem bisitaldia egin ondoren, Oihal honen barri emoten dautso Taio abateari.

VIII. mendean S. Juan Damascenoren aipamena (+749) aurkitzen da, irudi sakratuen alde egiten dauan hirugarren Hitzaldian.

X. mendean, Konstantinoplako errege jauregi alboko kapilla baten, hain zuzen ere, Sta. Maria de Blanquena, bereziki Oihal honentzat egindako kapillan, aurkitzen da.

XIV. mendean (1353an) Frantzian aurkitzen dogu Charny kondearen etxean. Paristik 150 kilometrora, hego-ekialderantz, Lirey lurraldean bizi zan Charny kondea, eta aldi honetan entzute handia ta gurtza garrantzitsua artzen asi zan Oihal hau; era berean, eztabaida ta polemika ugari sortzen ebala inguruetan.

XVI. mendean, Charney etxeak Saboya ospe ta indar handiko etxeari eskifia eutson. Saboya kondeak Chambery izeneko kapillan zainduko dau 1578 arte; Turinera eroana izango da urte honetan, geroztik hona Italiako huri industriatsu honetan dagoelarik.

Turingo gotzai-elizako altare nagusiko atzekaldean egokitua izango da Oihal hau, 1694an, kristau Jainko-zaleen onerazpena artzen dauala gaur arte.

Noizean behin Oihal honen erakusketa egiten zan, batez ere, Saboya etxeko (Oihalaren jabeen) gertaera nagusietan. Azkenengo hiru erakusketak, 1898an (Biktor Manuel III. ezkontzan), 1931an (Humberto II. ezkontzan) eta 1933an (kristau erospeneko XIX eheungarren urtea) izan ziran. 1973ko, azaroa 23, Europako telebista ikusle guztick heuren etxeetan begiratu ahal izan eben Turingo Oihaleko irudia.



Masai handituak

Tximurak

1532.eko sute baten erredurak

sahietseko zauria

Sabel handitua

Besoetatik darion odoia

Eskuturreko untzearen zauria


Qihalaren tolesturak

Uraren zikinunea

Sutearen kaltea estaltzeko txaplata

Oinetako untzearen zauria

Turingo Oihalaren deskripzioa



Oihal au liñozkoa da, esku ehundegi baten, artesau teknika, egindakoa; nahiko ondo zaindua, biurkoia, arifia.

Luze-zabaleko neurriak $4,36 \times 1,10$ m. emoten dabe. Dimentsio handia norbaitentzat? Antinoeko azterkuntzetan izara zati handiagoak aurkitu izan dira. Ebanjelioak, adierazten dauanez, honelako ehunak, hiletetarako, dendetan salgai egoten zirela, ba dirudi.

Zer-ikusi garrantzitsua izan eban 1532an jazoriko gertararak. Oihala zidarrezko kutxa baten batuta egoala, 48 tolesturetan, Cambery kapillan sute bat gertatu zan. Sutearen ondorioz, zidar urtuzko tanta batek, izara tolestuaren zokondo bat ikutu eban, sortzi erredura simetriko egiñez. Bestalde, kutxatxoaren orma goritu batek, inguruko tolestura batzuk kiskaldu zituan. Une haretan itzaltzeko botatako urak ere ezaupide batzuk itzi ebazan, gaur ere nabariak.

Oihaleko argazkia konputagailluan

Aukera ezbarriñetan Oihal honen argazki ofizialak atera dira, ta heurotan Oihaleko irudiaren aparteko edertasuna agertzen da: Fisonomia jatorra, bizarra ta ulea luzeak, semitarren mosu-belarriak, tradizioz Nazaretako Jesusi egokitu jakozan gizirudi bereiztasunak.

Yves Delage, Sorbonako unibertsitatean anatomia konparatua gaiaren irakasleak, erlejiñoz agnostikuak, urrengo deskripzioa emoten deusku: Turingo Oihalean agertzen danak, 1,81 m. alturean, 30 - 35 urte adiñean, 80 kg. pisuan; konplexioz giartsua, oizko onekoa, esku lanetan ibillitako gizon nahiko bular-tsua.

Yves Delageren ustez, gorputzean zehar aurkitutako markak, zauriak, kolpeak, ikutuak, sabelaldea handiatua etab. eriotz ankerra izan ebala nabaritzen dabe. Zauri marka guzti honeek nahiko adostasun bat dauke Ebanjelioak Jesusen nekaldi ta heriotzaz diñoanaz.



Judica Cordigliak 1969. urtean argazki ezbaridiñak atera eutsozan T. Oihal honi: egun argiz, zehar argiaz, Wod argiaz, infragorri ta ultramorezko izpiekaz.

Argazki honeek Jet Propulsion Laboratory de Pasadena'ko amerikar zientzi gizon biri bialdu eutsezan azterketarako. «Scanner» eta konputa-gailluaren laguntzaz T. Oihaleko irudiaren nekaldia, zigorraldia, eriotza analisatu ostean, hona hemen zientzi-lari bi honeek agerterazturiko zehaztasun batzuk:

- Kolpe zigor baiño, zauri zigor gehiago ditu.
- Zigor astinaldian, Jesus ez egoan zutunik, makurturik baiño.
- Zigorkariak bi ziran, eta 121 kolpetik gora emon eutsoezan.

- Arantza burestuna baiño, arantza mordoa ipiñi eutsoen buruan.
- Aurpegiko eskuma partea itxura-gābetuta. Ule xerlo bat, odolez beterik, aurpegiko ezker partean.
- Bizar pizka batzuk erdi aterata.
- Sur kartilagoak apurturik musturrekoren bategaitik.
- Gurutz bidea, gurutz langoa («patibulum») lepoan eroanez egin ebala.
- Tiren bultzadaz behin baiño gehiagotan jausi zala.

Argazkiak heurak baiño argiago elektronikak ta konputargailu bidez Kristoren nekaldiaren eta heriotzaren gertakizun batzuk egiztatu dira.

Ez da harritzekoa Yves Delagek Turingo Oihaleko gizona Ebanjelioetako Jesus dala baieztatzea, ta testigantza horretan bere erreputazio profesionala ta entzute handia, naiz eta agnostikoa izan, jokoan ipintea.

Vignon, Barbet, Sava, Bucklin eta beste gizon jakintsu asko testigantza bera ta ondorio bardiñera iritsi dira, hain korrelazio ta parekidetasun argia dagoelako Ebanjelioko testigantzen eta T. Oihaleko irudiko anatomia xehetasunen artean.

Oihalaren dataziorako zientzia aurkikuntza harrigarriak

Zientziak bere metodoekaz kristau aroko lehencengo gizaldikoa dala Turingo Oihala egiztatzan dau. Datazio honetarako proba ta testigantza asko izan dira, baiña urrengo hiru konstatazioak dira bikaiñenak, nire ustez:

Max Freik, Zurichko laboratorio zientifikuaren zuzendarriak, Roberto Spigo ta Aurelio Ghio irakasleen laguntzagaz Turingo Oihalean frogaketa palinologikoak egin ebazan, 1973 urtean.

Oihaleko errautsean aurkitutako polena aztertu ondoren,

ehun hau Palestinan eta Turkian egon zala konprobatzen dau. Frogaketa honetan 49 landaren esporak bereiztu ta analisatuta gero, 33 landaren polena Palestinan, Turkian, Estambulen baka-
rrik dagoz. Oihalcan aurkitutako polen mota landara gitxi hasi izan da European.

Beraz, Oihal hau Palestinan eta Turkian egon zala garai baten aldeztan dau, eta kristau aroko lehenengo gizaldian kokatu behar zala oihal honen datazioa, hona hemen Frei jaunak ateratzen dauan ondorioa.

Oihal hau erakustea eta gurtzea debekatu ebenak, jakiña danez, eleiz gizon bi izan ziran: Henri de Poitiers, Lirciko gotzaiñak, lehenengoz, 1357an, eta 25 urte geroago Pierre d'Arcis gotzaiñak. Clemente VII, Aita Santuari bialdutako eskutitzan, Pierre d'Arcisek, iruzur bat zala erliki hau, siñiskeria utsa sortzen ebala, zein artistak margoztutakoa zan, ezaguna zala, honelako xehetasunak jakin ziran Erroman.



Zelan sortu zan Turingo Oihaleko irudia? Berezko prozesu baten egin zan? Izugarritzko irradiazioaren batek kutsatu ta giza-itxuratu ete eban Turingo Oihal Santua?

Gilbert Raes Gante institutoko irakasleak 1973 urtean, T. Oihaletik kendutako hari batzuk analisatu ebazan. Zientzilari honek liñoazko ehunean algodoi hari litsa batzuk aurkitu zituan. Jakintsu honek diñoanez, aldi haretan, XIV. gizaldian ez zan ereiten algodorik European eta bai Ekialde Hurbillan. Gilbert Raesen testigantzak, Turingo unibertsitatean egitologo ospetsua zan Silvio Curtoren baieztapena, cuki eban: «Oihalaren ehungintzatik Kristoren garaikoa dala egiztatu daiteke», hau da, datazioa lehenengo gizaldian ipiñi ahal da.

Tridimensional datuetara jo daigun, heurok ere Oihal honen dataziorako barri interesgarriak dakarzkuezelako. Jon Jackson eta Eric Junper ditugu tridimensional ikerketak T. Oihalean egindakoak. Aztertzaile honeek Oihaleko irudiak aurpegiko betazaletan zerbait eukela konprobatu eben. Zerbait hori txikia ta borobilla zan, botoi bezelakoa. Txanponaren bat, behar bada?

Gaur egunean, judutarren hilerrietan egin diran ikerketekaz Jackson eta Junperren intuizioak egiztatuta geratu dira. Hain zuzen ere, Pontzio Pilatoren agindupean «lepton» eritxon txanpon bat egoan, eta hildakoak, aurpegiko betazaletan txanpon txikiak zituela lurperatzen ziran.

Lepton txanpon hau zearo egokitzen da Oihaleko irudiko bereiztasunekaz: Konputa-gailluaz egindako probetan 24 bereiztasun berbera zenbatu daitezke ubikaziñoan, anguluetan, apaingarrietan etab.

Carbono 14 sistemaren frogaketa egin arte, gaurkoz T. Oihal honen datazioa, polena, ehungintza eta txanpon analisak kontutan izanik, kristau aroko lehenengo gizaldian jarri daitezke probabilitate guztiaz.

Oihaleko irudiaren sorburua

Lege gizon zan Secondo Piak 1898an T. Oihalaren lehenengo argazkiak ateratzeko baimena lortu eban. Argazkari honek plaka negatiboak ikusterakoan, eskuetan argazki positiboak eukala konturatu zan, gaiñera, begi utsez ikusten zan baiño askoz argiagoa ta hobe. Hau da: Oihalean inprimaturik egoan irudia argaz-




John Heller eta Joan Janney kimikoki oihal sahtuko ataltxoak aztertzen.

ki negatiboa bezalakoa zan, zati illunak plakean argi agertzen ziralarik, eta alderantziz. Ezkerra eskuma, bardin, alde besteko agertzen ziran: eskuma plakean, ezkerrean argazki positiboan, etab.

Horrezkero, Oihaleko plaka negatiboan ehunaren barrena baltz aurkezten da ta zuri inpresio markak; argazki positiboak, ostera, ehun barrena zuriz eta inpresio markak baltzez.

Kostatazio guztiz aintzakotzat artu beharrekoa da, zientzilarien ustez, Oihalean gizonaren irudia negatiboan aurkitzea; Oihalari benetakotasuna damotsona, ez egoelako negatibo optikoatzaz ezelako jakintzarik, argazkia deskubritu aurretik, XIX. gizalde aurretik.



Vernon Miller, Eric Jumper, John Jackson eta Giovanni Riggi zientzilariak oihal edo mihesa santua aztertzen

Argazki argudio honetatik ondorio bardiñera iristen gara: XIV. mendean edo aurreko mendeetan ezin izan zan margoztu T. Oihaleko irudia, horretarako ez egoelako ez jakintzarik, ez teknikarik, ez eta posibilitaterik.

Baiña, zelan sortu zan gizonaren irudia Oihalean? Zelako baldintzak batera gertatu ziran honelako giza inprimazioa sortu-arazteko?

Zailtasun ezezagun baten aurrean aurkitzen dira zientzi gizonak, eta hipotesiak aurreratu beharrean. Aipagarrienak urrengoak dituzu:

«Teoria vaporigrafica» Vignon jakintsuak aldeztzen eta honela azaltzen dau: Hillobian gorpuak igaro zituén 40 orduak, soin ixurkiak (odola, izerdia, urea) ohialak berak eroandako aloe eta mirra usaiñak, sepulturako hezetasuna ta behe-temperatura, baldintza guzti honek ezin egokiagoak izan ziran kimika erreakzioa ta ondorioz Oihaleko irudia sortzeko.



Robert W. Mottern izan zan irudiaren neurri hirukoia edo tridimensionala izaera aurkitu ebenerariko bat.


Hillobian 40 ordutik gora kaltegarri izango ziran irudirako, negatibozko margoa illunegi ta bardintsuegi sortuko zalako; 40 ordutik behera, alderantziz, mehegia. Odol kutsak, zauri markak eta giza irudia kimika erreakzio honen bitartez inpregnatu eben Ohialea, harrigarriro Jesusen benetako argazkia Oihalean irarritzen zalarik.

Baiña urte batzuk geroago ezeztatuta geratzen da Vignonen hipotesi hau. 1969an, hamar italiar zientzi gizonak eta emakume batek osoturiko talde bat eratu zan Turingo Oihal hau aztertzeko. Entzungarri izan zan italiar zientzilari honeek 1973an jakin-erazi ebena: T. Oihalean ez eben aurkitu ezelako pigmentaziorik, ez odol hondarrik, ez tinterik. «Irudia izpi horizkekaz egiñik dago» iñoen, eta margo horiska hori ez da sartu, ez irarri liñoazko ehunean.

Zientzi talde honek ez eban aurkitu irudiaren sorburua azaltzeko gairik, ez xehetasunik. Areago oraindik: Zientzi talde honek, ikerkuntzaren laburpen bezela, «Vignonen teoria vaporio-grafica ukatu behar dala uste dogu -azpimarratzen dabe-egindako frogaketa guztiak horretara bultzatzen gaituclako».

Ikerketarik arraroenak NASAko zientzilariak aurkestu ebezan 1977an. Jon Jacksonek eta Eric Junperrek T. Oihalean zehaztasun tridimensionalak aurkitu zituen. Zehaztasun tridimensionalak, hori bai harrigarria!

Argi intensitatea ta distantzià aldez besteko egozela, konprobatzen dabe, hau da: Oihaleko irudia guztiz argi ikusten da ehunak gorpua ikutzen dauan unetan, suur, bekain, bekolan; irudiak, barriz, intensitate gitxiago dauka, Oihala ta gorpua ikututzen ez diren tokietan, begi zuloan, matrail-barnetan.



NASAko zientzilariak, argi intensitatea ta distantziaren artean alderantzizko erlazioa dagoela, konprobatzen dabe. Turingo Oihal honek argazki negatibo bat izanik, informazio tridimensionalak ere ematen dau.

Ikerketa tridimensional honek Oihaleko irudia tridimensional zerbaitek sortu ebala baieztatzen dabe zientzilari honeek, eta irudia ezin zala moldatu zuzenean ehun gorpua alkar ikutetik. Bitxitasuna horretantxe egoan: alkar ikutzen ez ziran unek, alan ere irudian agertzen dira, eta alkar ikutzerik gabe geratzen diran aldean intentsitatea ehun distantziaren proportzioan aldatzen da.

T. Oihaleko irudia, beraz, ez da bakarrrik argazki negatibo

bat, informazio tridimensionalarekin ematen da.

NASAKo zientziaren frogaketak eta emaitzak argazkien bidez eginak dira eta ez T. Oihala esku bistan ebela, azpimarratu beharrekoa da.

Ondorio bezela puntu honeek gogoan izan behar ditugu:

a) XIV. gizaldian margoztua izan zala hipotesisa ta Vignonen hipotesis «vaporigrafica» ezeztatuz geratzen dira NASAKo zientzi gizonen frogaketaz. Oraintsurengo «termica» hipotesisak ere inkognita barriak aurkesten ditu.

b) Turingo Oihaleko irudia berezko prozesu baten egin zala? Naiz eta zientzia ahin aurreratua izan, naiz eta teknika-gaillu ahin sofistikatuak euki, jakintsuak gaur egun, oraindiño, ez dabe aurkitu erantzun egoki bat, eta horregaitik hipotesis artean dabiliz.

c) Eleiza katolikuak ixillean jarraitzen dau, Turingo Oihal honen benekotasuna eta egitasuna zientziaren eskuetan itzirik, baiña Oihal honenganako kristau zintzoen oneraspena onartuz.

d) Zientzilariak ez dakie zelan sortu zan Oihaleko gizonaren irudia, baiña dancan gainetik, XX. gizaldiko zientzi gizonak dira Turingo Oihal honetako gizon baten gorpua bildu ebela, eta gizon hori kristau aroko lehenengo gizaldikoa zala defendatzen dabenak. Areago oraindik: parekidetasun zehatz bat dago Turingo Oihaleko irudiaren eta Ebanjelioko Jesusen nekaldiaren eta heriotzaren artean, jakintsu honeen ustez.

e) Zelan sortu zan Turingo Oihaleko gizonaren irudia? Irudi hori inprimatzeko berezko prozesuak ezeztatzen eta ukatzen baditu zientziak, zergaitik ez jo Jesukristoren Berbizkundeko eztanda irradiaziora? Natura bidetik, berezko prozesutik, azaldu eziña bada, preter-naturara edo supra-naturara zergaitik ez jo? Baiña, zientzia ta preter- supranatura zelan alkar buztartu? Horregaitik Turingo Oihal Santu honen aurrean, zientzi gizonak begirunea ta isiltasuna, eta kristauak debozioa ta sinismena jartzen ditu.

Jose Ramon Iurriaga